

## 2006ko Gabonak

Euskal herriarentzat gabonak familia biltzeko garaia da, oroitzapenerako garaia... baina ETAk berriro ere ilusioa zapuztu digu.

Nire lehen oroitzapena, Barajasko atentatuaren ondoren desagerturik jarraitzen duten bi laguentzat izatea nahi dut, haien familiarteko eta adiskideentzat; eta baita ere leherketa izugarri horren eragina jasan zuten guztientzat ere. Bihoakie nire eta euskal gizarte osoaren elkartasuna.

ETAk urtearen amaiera mingostu digu, baina ez digu esperantza lapurtu. Gure belaunaldiarentzat hauxe da gure helburua eta erantzukizuna: lana egin eta Bakea lortu; baita hitzarmen politikoak lortu ere, gure etorkizuna erabakitzeko, guztion artean, hemen Euskadin.

Atzo gertatutakoaren arduradun bakarra ETA da, horretan ez dago zalantzarik. Baino, zer egin dugu besteok? Guri ere badagokigu gogoeta egitea bake prozesua nola kudeatu dugun. Horrelako prozesu batek harrotasun gutxiago eta eskuzabaltasun handiagoa eskatzen digu guztioi, zoritxarrez, askoz zailagoa baita Bakea eraikitzea gerra egitea baino. Hori izugarria da, baina horrela da, ikusi berri dugun bezala.

Ez dugu aurrera egingo ETAREN indarkeria eta izaera politikoa duen gatazkaren irtenbidea nahasten ditugun bitartean.

Gure etorkizuna erabakitzeko eskubideak ez du baldintzatu behar ETAren indarkeriaren amaiera; alderantziz ere ez, ETAren indarkeriaren amaierak ere ez du baldintzatu behar demokrazian erabakitzeko dugun eskubidea.

Euskal herriak etorkizuna erabakitzeko duen eskubide hori ez dagoelako ETAren eskuetan, ez Espainiako Gobernuaren eskuetan, ezta Lehendakariaren eskuetan ere; euskal gizartearen eskuetan dago, zuen eskuetan! Eusko Legebiltzarra gordetzen du eta Estatutu Politiko Berriaren Proposamenean jasota dago 2004ko abenduan gehiengo osoz onartu ondoren.

Aurrera begiratu behar dugu iragana ahaztu gabe, indarkeriaren biktimei oroitzapen bizia eta hunkigarria eskainiz... zeren bakea ezartzea, elkarrekin bizitza, adiskidetza ez baita iragana ahaztea, baizik eta iraganaren irakurketa kritikoa egitea.

Baina ez nauzue lehendakari aukeratu arriskuen eta zailtasunen berri emateko bakarrik, irtenbideak bilatzeko, ekimen politikoak onartzeko eta itxaropenaren buru izateko ere aukeratu nauzue.

Garai zailak ditugu, baina argi eta garbi esan nahi dizuet ez Gobernuak eta ez Lehendakariak ez dugula hautsitzat emango bake prozesua, ezta irtenbideak aurkitzeko elkarritzeta politikoa ere.

Ezin dugu onartu bake itxaropena gainbehera erortzerik.

Esperantzari eusten diogu. Herri baten esperantza da bakea lortzeko aliatutrik onena. Zuek zarete esperantza. Zuen bultzada, zuen indarra, zuen erabakia da gaur aurrera egiteko dugun berme bakarra.

Baina bakea lortzea, hitzarmen politikoak erdiestea, ez da politikoen zeregina bakarrik, nabarmen geratu den bezala; guzti-guztioen zeregina ere bada. Gaur dugu beharrezkoen zuen parte hartze eraginkorra prozesu honetan hasieratik amaiera arte; hasieratik gure etorkizuna erabakitzeko dugun kontsulta demokratikoa izan arte.

Horregatik, gonbidapen eta eskari bat egin nahi dizuet: gogotsu har ezazue parte. Animatuz nahi zaituztet Politika Orokorrari buruzko Eztabaidan euskal herritarren esku hartzea bideratzeko agindu nituen ekimen guztietan parte har dezazuen. Ekimen horiek urtarrilean jarriko ditugu abian, bihar bertan hasiko dugun hilabetean, hain zuzen.

Askotan galdetzen diogu geure buruari, eta bereziki gaurkoa bezalako une zailetan, zer egin dezakeen gutako bakoitzak laguntzeko, bultzatzeko. Ondo, hemen daukazu erantzuna: parte hartu, zure iritzia eman, jarri zure aletxoa. Kontuan hartu ez duela inork zure ordez egingo eta guztioen indarra eta parte hartzea behar dugula, zurea ere bai, hau ondo atera dadin.

Konbentzituta nago euskal gizartea dela konponbidea ekarriko duena. Ziur egon zaitezte Herri honetako gizon eta emakume guzti-guztiok zaretela konponbidearen giltza.

Urte berri bat, aukera berri bat da aurrera egiteko, gure ametsak egia  
bihurtzeko eta ez ahaztu: betetzen ez diren amets bakarrak inoiz amestu  
gabekoak izaten dira.

Ez utzi amets egiteari, eta ez utzi inori zuen ametsak lapurtzen.

Eskerrik asko eta urte berri on.

## Gabon 2006

Para el pueblo vasco las navidades son época para la reunión familiar, para el recuerdo... pero este año ETA ha venido de nuevo a frustrar nuestras ilusiones.

Sea mi primer recuerdo emotivo de este mensaje de Gabon para las dos personas que siguen desaparecidas tras el atentado de Barajas y para sus familiares y amigos, así como para todas las personas que resultaron afectadas por la terrible explosión. Vaya para ellos mi solidaridad y la de todo el Pueblo Vasco.

ETA nos ha amargado el fin de año pero no nos ha quitado la esperanza. Para nuestra generación, nuestro objetivo y nuestra responsabilidad es trabajar para alcanzar la Paz, y también lograr acuerdos políticos para decidir nuestro futuro, entre todos, aquí, en Euskadi.

Está claro que ETA es la única responsable de lo sucedido ayer, pero ¿qué hemos hecho los demás? Quizá tendremos que hacer nuestra propia reflexión sobre cómo hemos gestionado el proceso de paz. Un proceso de esta naturaleza exige menos orgullo y más dosis de generosidad por parte de todos, porque, desgraciadamente es mucho más difícil construir la paz que hacer la guerra. Esto es terrible pero es así, como lamentablemente hemos vuelto a comprobar.

Mientras sigamos confundiendo la violencia de ETA con la solución de un conflicto de naturaleza política, no avanzaremos.

Es preciso no condicionar ni mezclar el fin de la violencia de ETA con el derecho a decidir nuestro propio futuro, ni tampoco al contrario condicionar el derecho a decidir, que nos asiste democráticamente, al final de la violencia de ETA.

Porque, este derecho del pueblo vasco a decidir su futuro no está en manos de ETA, ni del Gobierno Español, ni del Lehendakari, está en manos de la propia sociedad vasca, ¡está en vuestras manos!, depositado en el Parlamento Vasco y recogido en la Propuesta de Nuevo Estatuto Político aprobada por mayoría absoluta en diciembre del 2004.

Hay que mirar hacia adelante sin olvidar el pasado, con un recuerdo vivo y emocionado para las víctimas de la violencia...porque pacificar, convivir y reconciliar, no es amnesia sobre el pasado, sino lectura crítica del mismo.

Pero no me habéis elegido como Lehendakari simplemente para constatar riesgos y dificultades sino para buscar salidas, para tomar iniciativas políticas y para liderar la esperanza.

En un momento complicado como este, quiero deciros, con toda claridad que ni el Gobierno ni el Lehendakari vamos a dar por roto el proceso de paz ni el diálogo político para encontrar soluciones.

No podemos admitir que la esperanza de paz se desmorone.

Mantenemos la esperanza. La esperanza de un pueblo es el mejor aliado para conseguir la paz. Y hablar de esperanza es hablar de vosotros y vosotras. Vuestro empuje, vuestro coraje, vuestra decisión es hoy la única garantía para seguir avanzando.

Pero, alcanzar la paz y lograr acuerdos políticos, no es cosa exclusivamente de los políticos, como se está demostrando; es responsabilidad de todos y cada uno de nosotros. Ahora es cuando más necesitamos vuestra participación activa en el proceso desde el comienzo hasta el final, desde el inicio hasta la consulta democrática en la que decidamos nuestro propio futuro.

Por eso os invito y os pido que os impliquéis activamente. Os animo a que toméis parte en todas las iniciativas que para canalizar la participación de la ciudadanía vasca yo comprometí en el Debate de Política General y que pondremos en marcha en el mes de enero, que mañana iniciamos.

Muchas veces nos preguntamos, y más en momentos difíciles como el que hoy vivimos, qué puedo hacer yo para ayudar, para empujar. Bien, aquí tienes la respuesta; participar, dar tu opinión, aportar tu granito de arena. Piensa que nadie puede hacerlo por ti y que necesitamos de la fuerza y la implicación de todos, la tuya también, para que esto salga bien.

Yo estoy convencido de que la sociedad vasca es el sujeto de la solución. Tened la convicción de que todos y cada uno de los hombres y mujeres de este País sois la llave de la solución.

Un nuevo año es una nueva oportunidad para seguir avanzando, para hacer realidad nuestros sueños y no olvidéis que los únicos sueños que no se realizan son los que nunca se han tenido.

No dejéis de soñar, no dejéis que nadie arrebate vuestros sueños.

Eskerri asko eta urte berri on.